

Zer egiten zenuen Gaza suntsitzen ari zirenean?

DENOK PALESTINAREKIN. GELDI DEZAGUN GENOZIDIOA



Gatazka duela hamarkada batzuk hasi bazen ere, bi data erreferentzial daude. 1947an NBEk Palestina bi estatutan banatzea erabakitzen du. Israelgo Estatuari lurraldearen %55 ematen zaio, eta gainerakoa palestinar arabiarrei. Ben Gurionek, Israelgo Estatuaren "aita", honakoa iragarri zuen: "hau judu guztientzako Estatu lortzeko abiapuntu bat besterik ez da". Estatu etnikoki judua ulertzen da, palestinar arabiarrentzat lekurik gabea.


1948an Israelgo Estatu aldarrikatu zuten, eta lehen gerra arabiar-israeldarra piztu zen. Gerra honen ondorioz, Israelgo Estatuak lurraldearen %78 bereganatu zuen eta arabiar biztanleria %20ra murriztu zen.

700.000 arabiar-palestinar baino gehiago kanporatu zituzten beren herri eta herrixketatik. Palestinarrek Nakba (hondamendia) deitzen diote gertaera horri. Harrezkero, Israelek ez die inongo jaramonik egin NBEren erabaki guztiei, eta Palestinar herria Nakba iraunkor batera eta apartheid egoera nabarmen batera kondenatua izan da. Azken Nakba azken zortzi hilabeteetan ikusten ari gara Gazan.

Gazan gertatzen ari dena ikusita, Ben Gurionen hitz haiek gaur egun Israelen agintzen duen koalizioaren gobernu itunean jasotako paragrafo honekin lotu behar ditugu: "Herri juduak eskubide eskusiboa eta eztabaidea du Israelgo lurreko guztietara. Gobernuak lurralde guztietan finkatzea sustatu eta garatuko du".

Gizarteak azkarrago eta irmoago erantzun behar du indarkeria, apartheid eta garbitasun etniko egoera honen aurrean. Zer erantzungo dugu urte batzuk barru galdetzen digutenean: zer egiten zenuen zuk Gaza suntsitzen ari zirenean?

.../...



Mobilizazioak UPV/EHUn

Egoera honen aurrean sektore politikoaren epelkeria ikusita, kaleetan mobilizazioak oso garrantzitsuak izan dira. Azpimarratzekoa da mundu akademikoren zati batek Palestinaren aldeko mobilizazioetan duen protagonismoa.

Apirilaren 10ean, Estatuko 40 unibertsitateko sektore desberdinetako kideek (UPV/EHU barne) Francesca Albanese, NBEk lurralde palestinar okupatueterako Errelatore Bereziaren bideokonferentzian parte hartu genuen. Palestinaren aldeko Unibertsitate Sareak antolatu zuen. Gazako egoera *"genozidio nabarmentzat" jo zuen.*

UPV/EHUn langile eta ikasle talde batek lortu genuen otsailaren 27ko Klaustroko gai-zerrendan Palestinaren aldeko mozio bat sartzea, besteak beste, UPV/EHUK Israeliko boikota egiteko kanpainarekin bat egiteko eskatuz (Boikota, Desinbertsioa, Zigorak). Klaustroko Mahaiak, Errektorea buru duela, bozketa egiteari uko egin zion, Klaustroak gai honetan eskumenik ez duela argudiatuz. Klaustro horren ondoren, mozioaren aldeko sinadura bilketa egin zen, eta Klaustrokide gehienek bat egin zuten horrekin.

Handik gutxira Idazkari Nagusiak Palestinari buruzko akordio-proposamena igorri zien Gobernu Kontseiluko kideei, apirilaren 24ko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. **STEILASek** hainbat zuzenketa egin zizkion testuari. *"Eraso terrorista"* terminoa ezabatzea lortu zen, eta *"genozidioa"* sartu zen. Ez genuen lortu espresuki *"boikot"* terminoa sartzea, baina akordioaren bosgarren puntuak hau dio, besteak beste: *"... unibertsitateak ez du lagunduko inolako jarduera beliko edo indarkeriazkorik. Bereziki, Palestinan gertatzen ari diren gizateriaren aurkako krimenak berariaz gaitzesten ez dituzten Israelgo unibertsitate eta erakundeekin harremanak ez izateko eta hausteko kopromisoa hartzen du"*. Bozketa egin ondoren erabakia onartu egin zen aldeko 40 botorekin eta bi abstentzio. Testuinguru akademikoan Israelgo erakundeekin harremanak etetea ezartzen duen lehen adierazpen instituzionala izan da Estatuan.

STEILASek ofizialki galdetu zion Idazkari Nagusiari Israelgo unibertsitateekin edo lotutako beste erakunde batzuekin sinatutako hitzarmenei buruz. Bat bera ere ez dagoela erantzun zuen. Izan ere, ez dago horrelako hitzarmenik baina horrek ez du esan nahi Israelgo unibertsitateekin edo erakundeekin zeharkako harremanik ez dagoenik. Azken horren abidide da otsailean Espainiako *Instituto Nacional de Ciberseguridad de España (INCIBE)* delakoarekin zibersegurtasuneko katedrak sortzeko onartutako hitzarmena. Ofizialki ez da Israelekin egindako hitzarmen bat, baina justifikazio-memorian miatuz Tel Aviveko Unibertsitatea eta Shaul Amir, Israelgo Armadari lotutako profesional israeldarra azaltzen dira.

Azpimarratu behar da hitzarmen honetan parte hartzen duten UPV/EHUko Saileko langileek Israelekin harremana ezartzea ekar lezaketen hitzarmeneko alderdiei uko egitearen aldeko botoa eman dutela.

STEILASek konpromisoa hartu du aurkezten diren hitzarmen guztiak aztertzeko, Israelgo Estatuarekin loturatik ez dagoela ziurtatzeko.

Ikasleek hiru campusetan bultzatutako kanpaldiez gain, hainbat batzar sortu dira Palestinaren aldeko ekintzak sustatzeko, eta horietan **STEILASeko** afiliatuak parte hartzen ari gara. Joan den maiatzaren 15ean, **STEILASek** BDS mugimenduak antolatutako Nakbaren urteurrenaren oroitzapenean parte hartu zuen, eta ostirailean, maiatzak 17, beste sindikatu batzuekin batera, elkarretaratzeak antolatu genituen lantokietan.

Gazako genozidioaren aurka UPV/EHUn zein kanpoan egin diren ekitaldietan parte hartzera animatzen zaituztegu. Jar dezagun gure aldetik dagoen guztia Palestinan genozidioa, garbiketa etnikoa eta apartheid gelditzeko. •




www.steilas.eus

Araba ☎ 945 013 397
steilas-araba@ehu.eus

Bizkaia ☎ 946 012 434 / 435
steilas-bizkaia@ehu.eus

Gipuzkoa ☎ 943 018 436
steilas-gipuzkoa@ehu.eus



Erretirorako neurri berezien negoziazioa

2015eko erretiro-akordioak indargabetu ondoren, sindikatu guztiok jo genuen auzibidera akordio horiek berrezartzea eskatzeko; izan ere, gogoratuko duzunez, baliogabetze hori langileen babesik gabe hartu zen, eta akordioak salatuz gero akordioek eskatzen zuten eskakizuna bete gabe. Gainera, gaur egun indarrean dagoen araudia ozta-ozta onartu egin zen Gobernu Kontseiluan egindako bozketan, non emandako 40 botoetatik 20 bakarrik izan ziren aldekoak.

Horrek guztiak agerian uzten du unibertsitate-komunitateak babes eta abal gutxi ematen diola 2022ko arrazionalizazio-planari, eta horrek, gainera, langileen eta erakundearen arteko atxikimendu falta handia ekarri zuen.

Dakizunez, araudi berri horrek, erretiro aurreratuagatiko kalte-ordainak kentzeaz gain, dagoeneko eskuratuta zeuden eskubideak nabarmen murriztea ekarri zuen, eta erretiro aurreratua eta erretiro partziala sustatzen zuten neurri guztiak ezabatu ziren, bai eta, TEKAZELen kasuan, kasu guztietarako jasotzen ziren baimen bereziak ere.

Bide judizialean lortu genuen lehen erantzuna EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak ELA sindikatuak jarritako demandari emandako epaiaren eskutik etorri zen. Epaiak adierazi zuen kalteordainen baliogabetzeak bidezkoak zirela, baina ez 2015eko akordioetan jasotzen ziren gainerako baimenak eta, beraz, azken horiek itzuli egin beharko lirateke. Gaur egun badakigu UPV/EHUK epaiaren aurkako errekurtsua aurkeztu diola Auzitegi Gorenari, eta, beraz, gutxienez urte batzuk itxaron beharko dugu auzitegi horrek zer erabaki hartuko duen ikusteko.


Akordio-proposamen berria

Bitartean, Administrazioak erretirorako neurri berezien negoziazioa suspertzea erabaki du, eta guk lanari ekin diogu.

TEKAZELen esparruan, lehen proposamena gure abiapuntua den 2015eko akordioan jasotzen ziren neurrietatik asko aldentzen zen bitartean, gerentziaren proposamena zabalduz joan da, egin dugun lanari esker, joan den maiatzaren 17an proposatutako [azken honetara](#) arte. Lan horretan, primak alde batera utzita, 2015ean genituen eskubideak jasotzeaz gain, bi baimen berri ere jasotzen dira: bata antzinasunagatik, eta bestea, baimen bati baino gehiago, justizia sozialeko neurri zuzentzaile bati erantzuten diona, hala nola genero-arrakala arintzeko txertatutakoari. Bestalde, aldatu egin dira 2015ean aintzat hartu ez ziren zenbait alderdi, hala nola LPZn lanpostu hutsa eskatzea bitarteko langileentzat, era horretan iraupen luzeko kontratuak dituzten pertsonak sartuz.

Irakasle eta ikertzaileen esparruan bestalde, negoziazio prozesua ez da erraza izaten ari. Hala eta guztiz ere Irakasleen Errektoreordetza bere hasierako proposamen motzetik mugiaraztea lortu dugu. Esku artean dugun azken proposamenean %125era igotzen du kredituak murrizteko aukera (30 kreditu) eta erretiroa hartu aurretiko lau urtera eramaten du beraz, murrizketak horiek egiteko aukera. Murrizketak azken urtetan pilatzeko aukera ere ematen du, hartara, erretiroa aurerratea ahalbidetuz. Bai eta murrizketan erretiro partzialarekin ere batzea. Horrekin batera, TEKAZELen arloan bezala genero-arrakala zuzentzeko neurriak onartzen dira. Murrizketak ez dira guk mahai gainean jarritakora heltzen eta arazoak ditugu oraindik baimen baimen ordainduekin eta erretiro datarekin.

Negoziazioak oraindik jarraitzen duenez, **STEILASek** egungo baldintzak hobetuko dituen akordio bat lortzeko borrokan jarraituko du. •




Unibertsitatea, Kode Etikoa eta adierazpen askatasuna

STEILAS sindikatuak lekuz kanpoko irizten dio EHUko Errektoretzaren ahaleginari pertsona baten parte hartzea galarazteko gure Unibertsitatean berriki ospatu den "Subirotasuna(k) aztergai" kongresuan komunikazio bat aurkeztuz. Ez dugu ulertzen bere eskubide pertsonal eta zibil guztien jabe den pertsona baten jardura akademikoa oztopatzeko ahalegina, ez bada zenbait hedabidek gertaera honen inguruan zabaldutako gezurrengatik eta egindako presioagatik. Harridura ere sortzen digu, orain arte alderantziz jokatu izan baitu EHUko Errektoretzak antzeko gertaeren aurrean, defendatuz Unibertsitatearen izaera ideia ezberdinen eztabaida eta topagune gisa. Aitzitik, oraingoan, presio mediatikoaren aurrean makurtu du Errektoretzak bere burua.

Horretarako Unibertsitateak berak berriki onartutako Kode Etikoa erabili du aitzaki moduan. **STEILAS**en uste dugu halako Kode etikoa ezin dela Unibertsitatearen izaeraren muinean dagoen izpiritu kritiko eta sortzailearen bultzatzaile izatearen printzipioaren kontra joan. Mesede eskasa egingo dio horrela Unibertsitateak gure gizarteari, beharrezkoa duen eztabaida irekia bultzatu ordez, zentsura eta kartzelazio irizpideak bereganatzen baditu. EHUren kode etikoa sei printzipio nagusiren gainean eraikitzen da: berdintasuna, askatasuna, egia, errespetua, zerbitzu publikoa eta gizartearekiko konpromisoa eta jasangarritasuna. Eta, besteak beste, honako konpromisoak ere hartzen ditu bere gain: "bakea, justizia eta elkarbizitza demokratikoa eta euskal jendartearen garapen jasangarri eta bidezkoa bultzatzea, terrorismo eta indarkeria mota oro gaitzetsita". Horietako bakar batek ere ezin da erabili bergizarteratzeko beharrezko pausu guztiak emanak dituen pertsona bat baztertzeko. Aitzitik hala egiteak pertsona horren eskubide eta integritatearen kontra egitea ere suposatzen du. Eta okerreña dena, ez bakarrik pertsona horren kontra baizik eta kongresuaren eta bertan parte hartu duten pertsona guztien kontra ere, babes gabe utziz iritzi publikoaren aurrean.

Horregatik eskatzen diogu EHUri ez dezala gehiago Kode etikoa zentzu hertsian interpretatu eta erabili dezala Errektoreak sarbidean dioen moduan ez arau juridiko baten moduan, baizik eta jokabide eta balioen transmisioaren bidez, egungo arauak interpretatzen lagundu eta etorkizuneko arauak lantzeko bidea erakutsiko digun jokatu beharreko eredu bezala. •



EHUko IV. BERDINTASUN PLANA



III. Berdintasun Plana amaitutzat emanda, IV. Berdintasun Plana (2024-2028) lantzeari ekin dio unibertsitateak azken hilabeteetan eta **STEILAS**, sindikatu feminista izaki, aktiboki parte hartzen ari da lanketa honetan.

Plan berri honek egungo egoerari buruzko [diagnostiko-txostena](#) eta ordainsarien inguruan egindako auditoretza bati buruzko datuak jasotzen ditu, baita hainbat ardatzen inguruko neurri eta ekintza zehatzak ere, hala nola: Formakuntza, Ikerketa eta Transferentzia, Gizartea eta Kultura, Pertsonak, Gobernantza eta Baliabideak.

STEILASek zenbait neurri positibo eta ekintza proposatu eta sartu ditu ardatz horien inguruan:

1. Unibertsitate-gizarte Gela bat sortzea indarkeria matxisten gaiaren inguruan.
2. STEAM arloetan emakumeen presentzia indartzeko katedra sortu.
3. Ikasketa-planetan teoria eta praktika feministaren berezko curriculum gaiak eta ikasgaiak sartzea.
4. Gradu ikasketetan kupo bat erreserbatzea emakumezko ikasle arrazializatuentzat: %1.
5. Genero ikuspegia duen Osasun Arloko formakuntza espezifikoa.
6. IRI eta TEKAZEL gizonei zuzendutako formakuntza feminista.
7. Seiurtekoen aitortpena: ekintza positiboko neurriak hartzea berdintasuna bermatzeko.
8. Aurrekontuak: ondo zehaztuta eta adierazita, zentroko berdintasun batzordeei aurrekontu propioak esleitzea.
9. Berdintasunerako Zuzendaritzaren antolakuntza eta kudeaketa sendotzea eta hiru campusetara hedatzea.
10. Sinadura bibliografikoetan izen osoaren erabilera ikusgarritasuna bermatzeko eta estilo bibliografikoen egokitzea.
11. Telelana indartu, plaza kopurua handitu eta urrutiko lana martxan jarri

kontziliazio gida:

STEILASen uste dugu sektore publikoak tresnak eta mekanismoak eskaini behar dituela zainketak modu zuzen eta bidezkoan gauzatu ahal izateko. Hortaz, kontziliazio-gida oinarri hartuz EHUK lana, familia eta bizitza pertsonala uztartu ahal izatea bermatu behar du, hitzez eta izatez. Orain arte, gida honetan onartutako baimen berriak indarrean dauden arauetan jasotakoak dira (Familien Legea / Abortuaren Legea, etab.):

- **8 asteko guraso-baimena:** adingabeak 8 urte bete arte hartu ahal izango den 8 asteko baimen ordaindu gabea. Behin eta berriz entzuten ari gara ordaindutakoa izango dela, baina oraingoz ez dakigu noiztik aurrera emango den egoera hori).

STEILASetik bere osotasunean ordaindua izatea exijitzen dugu, Europako 2019/1158 Kontziliazioari buruzko zuzentarauak dioen bezala.

- **5 egun senide edo bizikideentzat:** baimena pertsona bizikideentzako zabaldu da. Kasu honetan, ospitale-altarekin baimena ez bukatzea eskatzen dugu. Egun horiek ez dira elkarren segidan hartu beharko ezinbestean, baina ezin izanen dira hartu ospitaleko alta hartu eta 15 egun igaro ondoren.
- **Urtean gehienez 4 eguneko baimen ordaindua, familia-erantzukizunekin lotutako ezinbesteko arrazoientzat:** lan-kontratuko langileentzat zein funtzionarioentzat izatea eskatzen dugu, eta larrialdia gertatzen den unean lanpostuan egotea ezinbesteko baldintza ez izatea eskatu ahal izateko.
- Baita ere gaur egun jada existitzen den hileko min ezgaitzaileentzat baja hartzeko eskubidea


Testuinguru honetan Kontziliazio Gidaren proposamena nahikoa ez dela ikusten dugu, eta badela garaia indarrean dagoen arautegitik haratago doazen pausoak eman eta neurriak hartzeko. Gainera, jasotako baimenen izaera familia-unitate tradizionalaren inguruan eraikita dago erabat, eta, beraz, baztertu egiten da odol- edo familia-loturarik ez duten pertsonak zaintzea edo zaintzeko aukera izatea. **STEILAS**en urteak daramatzagu familia egitura tradizionalari edo odolkidetasun harremani erantzuten ez dieten familia-unitate berriak aldarrikatzen.

Zaintzetan eta familia-forma berrietan paradigma berri baten alde borrokatzen jarraitzen dugu eta horrela egin genuen mugimendu feministak deitutako azaroaren 30eko greba feministarekin bat egin genuenean ere, eta urtero bezala Martxoak 8an ere. Behin baino gehiagotan planteatu dugu gai hori negoziazio-mahaietan, eta azkenean lortu dugu lanean jartzea BINKULOGRAMA ereduaren benetako proposamen batekin:

"nahitaez familiakoak izan behar ez diren pertsonak hautatzeko har daitezkeen kontziliazio-neurriak" (REAS Euskadi)

Hau da, zainketekin, kontsulta medikoekin eta familiakoen arretarekin lotura duten baimenak norberak askatasunez hautatutako pertsonekin erabiltzea.






STEILASen uste dugu ezinbestekoa dela eredu alternatibo berri hau, ohiko familia-ereduaren paraleloa eta berdintsua izango dena. Binkulogramak egungo premia sozialei eta kidesun-harremanen askotariko ezaugarri eta berezitasunei erantzuten die, gizarte aurreratu eta modernoaren ispilu.

Bestalde, beste neurri batzuk aldarrikatzen jarraituko dugu:

- Bularreko haurren zaintza: eskaera data aldatzea, eta jaiotzagatiko baimenaren nahitaezko aldia bukatu baino lehen eskatu behar ez izatea
- Adingabeen tutoretzetara joateko ordu gehiago
- Genero-indarkeriaren biktimak: soldata-murrizketarik gabeko lanaldi-murrizketa
- Adingabeak zaintzeko baimen guztiak 16 urte bete arte luzatzea
- 50 orduko lan-poltsa erabiltzeko malgutasuna, sarrerako edo irteerako orduetara ez mugatzea
- Urtean 20 egun naturaleko baimen ordaindua dolu-prozesuetarako, senidea, bizikidea edo laguna hilez gero
- Erditzea prestatzeko saioetara joateko baimena guraso bientzat
- Suizidio arriskuan dauden pertsonen laguntzeko baimena: 2 asteko baimen ordaindua suizidatzeko arriskuan dauden pertsonen laguntza eta zaintza bermatzeko. EHU dagoeneko badabil gai honen inguruan lanean eta abian da suizidioaren aurkako protokoloaren lanketa

Neurri horiek guztiak gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da Berdintasunerako Zuzendaritzako plantilla handitzea eta EHUko aurrekontuetan berdintasunerako zerbitzuetarako berariazko partida propioa eta esanguratsua egotea.



ARRISKU PSIKOSOZIALAK ETA LAN-OSASUNA

Administrazio Publikoan, eta, zehazki, gure Unibertsitatean, hierarkia handiko lan-ingurunean bizi gara, eta honek langileen osasun mentalari eta erakundearen beraren funtzionamenduari eta lanari kalte egiten dioten faktoreak sortzea bultzatzen dezake.


STEILASek arrisku psikosozialen prebentzioa merezi duen moduan kontuan hartzea eskatu du, eta alde zuzeneko neurri gisa proposatu dugu lantaldeak koordinatzen eta kudeatzen dituzten pertsonen ikastaroak egin behar izatea nahitaez, haien mendeko pertsonen beren lana elkarrenganako konfiantza eta errespetu oinarritutako giro osasungarrietan egin ahal izateko beharrezko trebetasunetan gaitzeko.

Bestalde, azken Zibersteilas-en jakinarazi genuenez, Laguntza Psikologikoko Zerbitzua indartzea eskatu genuen, eta, gainera, zerbitzu hori unibertsitate-komunitate osoari ematea, eta ez soilik ikasleei. Orduz geroztik, badakigu zerbitzu honetako plazak handitu egin direla beste lanpostu batekin programa-kontratu baten bidez: 2023ko otsailean hiru campusetan arreta emateko 2 psikologo kliniko izatetik 3 psikologo izatera pasa dira, bat Bizkaiko campusean, beste bat Gipuzkoan, eta hirugarrena Gipuzkoan eta Araban kontsultak egiten dituen. Hala ere, arreta ematen duten kontsulten kopurua kontuan hartuta, uste dugu gaur egun langile gehiago behar direla. Pandemiaren aurretik bezala zerbitzua unibertsitate-komunitate osoari eskaintzera bueltatuko bagina, **STEILASek** eskatzen duen moduan, TEKAZEL eta IRIak barne, argi dago behar diren profesionalen kopurua handiagoa izan beharko litzatekeela.

Era berean, 2023an, irakasleen kezka informatu genuen, ikasleek beren buruaz beste egiteko arriskua dagoenean esku hartzeko baliabide nahikorik ez dagoelako. Hori dela eta, suizidioa prebenitzeko protokoloa, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan aplikatzen dena, Unibertsitateko eramatea eskatzen dugu, eta dagoeneko lehen urratsak eman dira lantalde bat sortuz, Eusko Jaurlaritzaren protokoloa sortzen parte hartu zuten adituen koordinazioarekin eta inplikazioarekin. Aditu horiek, aldi berean, irakasle eta ikertzaileen, prebentzioko, psikologiako, gizarte-ordezkaritzako eta irakasle zerbitzuko kideak dira.

Jakina da gizarte- eta lan-inguruneak pertsonen osasun psikologikoan duen eragina. Gure egunaren zati handi bat gure lantokietan pasatzen dugu. Hori dela eta, erakundeek berebiziko garrantzia dute lan-ingurune osasungarriak eta gogobetegarriak sortzeko eta horiei eusteko.

STEILAS i osasun mentalak axola zaio, eta lanean jarraituko dugu osasun mentala UPV/EHUn berma dadin.



2019-2020-2021-2022 LEPa

Prozesuen hurrengo urratsak


- **Lan kontratudunak:** dagoeneko publiko egin dira behin-behineko kalifikazioak eta eskaintako lanpostuen zerrendak. Aurreikuspenen arabera, lanpostuak hautatzeko izapidea ekainaren lehenengo hamabostaldian egingo da. Karguaz jabetzeari dagokionez, gerentziak laster helaraziko dizkigu xehetasunak sindikatuoi.
- **Funtzionarioak:** barne promozioaren esleipenak ekainaren erdialdean argitaratzea aurreikusten da. Merezimendu lehiaketa eta lehiaketa- oposizioari dagokienez, bi prozesuetako zerrendak uztailean argitaratzea aurreikusten da, IVAPeko azterketen emaitzen faltan.

Ezohiko epe berri bat behar da lan-poltsetan lehentasunak finkatzeko

STEILASek mahai negoziatzaileetan eskatu du lanpostuak esleitu ondoren, bai lan-kontratuko langileentzat bai funtzionarioentzat, ezohiko epe bat ireki dadila, plazarik lortu ez duten pertsonen lan-poltsetan beren lehentasunak berriro ezartzeko aukera izan dezaten. Gure ustez, eszenatokiaren aldaketa nahikoa esanguratsua da epe berri honen irekiera justifikatzeko. Espero dugu gainerako sindikatuek erreklamazio hori babestea eta gerentziak onartzea.

Campusa aldatzeko ezohiko prozesua

STEILASen ekimenez, LEParen gutxieneko akordioak aparteko prozesu bat jasotzen du, zerbitzu-eginkizunen edo funtzio-esleipenen bidez campusa aldatzeko, erreferentziako campusetik kanpo lanpostu baten esleipendun diren pertsonen irtenbide bat ematen saiatzeko. Hurrengo bileretan, prozesu horren ezaugarriak zehazten joatea proposatuko dugu.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 013 397
steilas-araba@ehu.eus

Bizkaia ☎ 946 012 434 / 435
steilas-bizkaia@ehu.eus

Gipuzkoa ☎ 943 018 436
steilas-gipuzkoa@ehu.eus